

Pako Eguna,
Sanjoanak, 750.
urteurreneko
kontzertua... ▶ 2



Harpidedunei banatua ▶ Ostirala ▶ 2006-06-02 ▶ IV. urtea ▶ 901. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Mugikortasuna eta etxebizitza, aipagarrienak Ernioaldeko azterketetan

DIAGNOSTIKOA ▶ Aduna, Anoeta, Asteasu, Hernialde, Irura, Villabona eta Zizurkil udalerrietan egiten ari diren Agenda 21 prozesuaren baitan, egungo egoeraren eta etorkizunerako erronken berri eman zuten atzo ▶ 4

TXARAMA ▶

Herri jaietan, egun osoko festa, bihar ▶ 6



19 domina eskualdera infantil mailako Euskadiko Atletismo Txapelketan

TOLOSALDEA ▶ 13 domina jantzi dituzte mutilek eta 6 neskek; taldeka, Hirukide txapeldun ▶ 3

ARESO ▶

Bi tiralari gutxirekin da Areso taldea

Etxetxikia eta Susperregi, lesionatuta ▶ 7

HITZA



TOLOSALDEA
GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

- Lanbide Heziketako Ikerketa eta Berrikuntzarako Institutua
- 2001ean, Eusko Jaularitzako Zilarrezko "Q" saria
- 6 urtez, ISO 9002 ziurtagiriarekin

Goi-mailako zikloak: Euskaraz

- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Eraikin eta Prozesu-Instalazioen Mantenimendua eta Jartzea
- Metal-Eraikuntza
- Erregulazio eta Kontrol-Sistema Automatikoak
- Administrazio eta Finantzak
- Informatika- Sistemaren Administrazioa

IZEN EMATEAK / AURREMATRIKULA:
EKAINAREN 1etik 7ra



Tfno.: 943 65 11 47 / 943 65 06 64
Fax: 943 65 18 56
idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com
Santa Luzia, 17 • 20400 TOLOSA



BEDAIO ▶

Eguraldi ona garai bateko harri jasa gogoratzeko

Giro onean ospatu dute Harri Jaia bedaiorrek ▶ 5



Trikilariarik girotu zuten hamaiketakoaren ueña Artubi elkartearen. n. u.

TOLOSA ▶ KULTURA

Hil honetan ere, aukera andana, kultur ekitaldien barruan

Antzerkiak, erakusketak, kontzertuak...; mota guztietako publikoarentzat zuzendutako egitaraua

ESTI EZEIZA

Udaren atarian, eta ikasturtea amaitzeaz dagoela, ez asperetzeko adina ekitaldi eta aukera izango dira hil honetan. Erakusketak, antzerkiak, kontzertuak... adin, eta gustu guztiak asetzeko adinako egitaraua prestatu dute ekainerako. Horren adibide dira ondoren zerrendatutako kultur ekitaldi eta jarduerak:

ZINE-KLUBA

'Como una imagen'. Agnes Jaoui-rena. Hilaren 8an, 21:30ean, Kultur Etxean.
'Los cuatrocientos golpes'. Francois Truffaut zuzendariaren lana. Hilaren 15ean, 21:30ean, Kultur Etxean.
'Saraband'. Kore-eda Hirokaurerena. Hilaren 22an, 21:30etik aurrera, Kultur Etxean.

ERAKUSKETAK

Argazki erakusketak. Mendikoi elkarteak antolatuta, hilaren 8tik aurrera ikusgai egongo da.

Migel Angel Oribe. Eskultorearen lanak ikusgai izango dira, gaurtik, uztailaren 1a arte Aranburu Jauregian.

Kultur Etxeko Tailerrak. Pintura, zeramika eta ehaziri ikastaroetan egindako lanak, hilaren 14tik uztailaren 1a arte, Aranburu Jauregian.

KIROLA

Euskadiko Eskolarteko XXV. jokuak. Hilaren 3an eta 4an ariko dira Hego Euskal Herriko 1.600dik gora haur Usabal kiroldegian.

MUSIKA

Sanjoanetako 750. urteurreneko kontzertu berezia. Zu-

mardi handian, hilaren 10ean egingo da, 19:00etatik aurrera.

Perkusio kontzertua. Musika Eskolako ikasleen ikasturte bukaerako emanaldia izango da Musika Eskolan bertan, hilaren 14an, 19:00etatik aurrera.

Abesbatzen Europako Txapelketa. Aurtengoa Usabalen egingo da, hilaren 17an.

Haizeko tresnen kontzertua. Musika Eskolako ikasleek kurtso bukaerako kontzertua eskainiko dute hilaren 17an, Musika Eskolan, 19:00etan.

Musika-tresna ezberdinen kontzertua. Musika Eskolako ikasleen kurtso bukaerako kontzertua izango da hilaren 21ean, Musika Eskolan, 19:00etatik aurrera.

Nueva Vulcano eta The Life and Times. Hilaren 30ean eskainiko dute bi taldeek zuzene-



lazioako emanaldia, 22:30etik aurrera, Bonberenean. J. SAIZAR

ko emanaldia, 22:30etik aurrera, Bonberenean.

ANTZERKIA

'Ser o no ser'. Gehitu Elkarteak antolatuta, antzerkia eskainiko dute hilaren 4an, 19:00etan.

BESTERIK

Ereite. Elkarte berriaren aurkezpena egingo dute gaur, arratsaldeko zazpitan.

AHT. Pentsaurrekoa eskainiko du bihar eguerdian Elkarlanak Tolosan. Proiektuaren aurka sinatzeko eta arrazoiak emateko aukera ere emango dute eskualdean.

Dantza emanaldia. Kultur Etxeko dantza tailerrekoek

saio bat egingo dute Usabalen, hilaren 10ean, 16:30ean.

Pako Eguna. Udal Gazteria Departamentuak antolatuta, Pako eguna hilaren 17ko goiz guztian zehar izango da aurten, Santa Maria plazan.

Graffiti Lehiaketa. Udal Gazteria Departamentuak antolatuta, eta Triangulo plazan egingo da hilaren 17an, 17:00etatik aurrera.

Uxola Sariak. Errota Haur Liburutegian banatuko dituzte hilaren 20an, 18:00etan.

Haur Liburutegiaren inagurazioa. Hilaren 22an egingo da Errotan. Haur jolasak, kale antzerki eta txokolatadarekin ospatuko dute jaiak.

HEZKUNTZA ▶

E. EZEIZA

Ikasturtea amaierara iritsi den honetan, Tolosa, Ibarra, Villabona eta Anoetako ikastolek, beren eguna ospatuko dute asbesturuan:

LASKORAIN IKASTOLA

Etzi, igandea. Urtero bezala, ekintza ugari antolatu dituzte egun hau ospatzeko Tolosako Laskorain Ikastolakoek. Hone-la, azken urte hauetan egiten den bizikleta ibilaladiarekin emango diote hasiera egunari. Jarraian, hamaiketako eskainiko dute Usabalen eta umeentzat hainbat joko antolatu dituzte. Segidan, ikasleek prestatutako emanaldiak izango dira ikusgai; hauen artean, Haur

Asteburu honetan jaialdiak egingo dituzte eskualdeko ikastoletan

Beren eguna ospatzeko, ikasturte amaierako festak antolatu dituzte

Hekuntzakoen dantzak, abesbatza, antzerkia... Aurtengoan, gainera, gurasoek Ikastolako patioan prestatutako paella dastatzeko aukera izango dute hara bildutakoek. Ondoren, txikienez Korri eta xalto pailazoen emanaldia izango da eta, amaitzeko, Karraxi taldearekin dantzaldia. Bestetik, egun horretan banakako pilota txapelketako final handia jokatu denez, pantaila erraldoi bat ja-

rriko dute Ikastolan, hau ikusteko.

UZTURPE IKASTOLA

Bihar, larunbata. Ibarra Uzturpe Ikastolak eta Udal Haur Eskolak antolatuta, Uzturpegunan festa ospatuko dute. Ekitaldiak 10:30etan hasiko dituzte, Zumardi Handian. Bertan kroza, zaku karrera eta patinaia probaz osatutako triatloi bat egingo dute. 12:00etan, berriz, herriko plazan, 2-5 urte bitarteko haurrentzako jolasak prestatuko dituzte. Ordu berean, eta toki berean, pilota partiduetako finalak jokatu dira. Eta aldi berean, baina kiroldegian, beste batzuk rokodromoan ibiliko dira. 13:00etan, herriko plazan tokan ariko dira ikasle-etako batzuk. Jarraian, joko guztiak amaituta, 14:00ak alde-

ra, bazkaria egingo dute Uzturpekoek kiroldegian, trikitilariak alaituta. Baina eguna ez da hemen amaituko, arratsaldean ikasleek eskolaz kanpoko ekintzetan landutako jardueren erakustaldiak eskainiko dituzte: Musika Eskolako saioa, Alurr dantza taldeko dantzarik, eta hockey partidua.

JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA

Bihar, larunbata. Villabona-Zizurkilgo ikastolak Txermingo eraikinean ospatuko du aurtengo festa. Arratsaldeko ordu bietan hasita, hainbat ekitaldi prestatu dituzte egun honetarako. Hasteko, DBHko ikasleek pelota partiduak jokatu dituzte Olaederra frontoian. Ondoren, 15:00etatik 16:00etara, maila bereko gaztetxoek futbol partiduak jokatu dituzte

Txermingo ikastolan. Eta, aldi berean, DBHko ikasle, irakasle eta gurasoak musean ariko dira. Hau amaitu bezala, kros herrikoa egingo dute Txermingo auzoan bertan. Jarraian, 16:30ean, hurrek prestatutako ikuskizun, joko eta dantzak izango dira ikusgai. Eta hau amaitu bezain pronto, piraten jolasa egingo dute. 19:30etik aurrera, berriz, dantzarako aukera izango da Disko festarekin eta, amaitzeko, DBH 3ko ikasleek prestatutako ogitarteko eta pintxoekin afari-merienda egingo dute. Bestetik, 17:00etatik 19:00etara, zabalik egongo da eskularen erakusketak.

ANOETAKO HERRI IKASTOLA

Hilaren 11, astelehena. Urtero legez, Anoetako herri Ikastolak ikasturtearen festa ospatuko du. Datorren igandean egingo du, hilaren 11n. Egunean zehar hainbat eta hainbat ekintza antolatu dituzte anoetarrek: ibilaldi neurtua, kalejira, eskularen erakusketak, amaldiak, futbol partida, bazkaria, sari banaketa eta denentzako jokoa, besteak beste.

▶ TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Eztabaida. «Urtebete pasatxo igaro da Tolosako Gerontologikoa itxi zutenetik. Gerontologikoren aldeko plataforma irtenbide bila ari da geroztik. Orain Udalak proiektu berri bat aurkeztu du». Zein iriziti duzu honen guztiaren inguruan? Sartu gure web orrian, eta eman zure iritzia gai honen inguruan eta baita beste hainbat gairen gainean ere.

TOLOSA ▶

Sanjoanetako Koadrila eguneko txartelak salgai

Gaurtik hasita salgai izango dira San Joan jaietako Koadrila Egunerako txartelak, Tolosako Orbela, Meskal eta Ikatza tabernetan. Hiru asteburuz izango dira eskuragarri (bihar eta hil honen 9an, 10ean, 16an eta 17an). Ordu-tegia, ostiraletan 19:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 11:00etatik 13:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Txartelak eskuratzeko azken eguna, beraz, hilaren 17an izango dute bazkarira joan nahi duten interesatuek.

TOLOSA ▶

Xake jokalariek fin, Kutxa Txapelketan

Aurreko asteburuan xakeko Kutxa Txapelketan infantil mailako lehen fasea amaitu zen. Tolosako Xake elkartetik Intxaurren Mendia, Etxenike, Sanchez eta Arrikarte jokalariek osatutako taldeak hartu zuen parte. Lan txukuna egin zuten probintziako zonalari zailenean, Donostian alegia, laugarren izan dira eta. Bestalde, hil honen 11n, igandean, 10:00etatik aurrera, Tolosako partida azkarretako txapelketa jokatuko dute, Tolosako Xake Elkartearen egoitzan bertan. Elkarrekin herriko nahiz inguruko zaletu guztiei bertan parte hartzeko deia luzatu nahi izan die. Horretarako, nahikoa izango dute interesatuek elkartera joatea txapelketa egunean bertan, hasiera ordua baino minutu batzuk lehenago.

ANOETA ▶

Koadrila Egunean parte hartzeko izen-ematea

Herri Borondarearen aldeko Festetako arduradunek antolatutako egitarau zabalaren barnean, hil honen 10erako, larunbatarekin, antolatutako Koadrila egunerako bazkarian edota afarian izena emateko epean hilaren 6an amaituko da, asteartearekin. Hortaz, joan nahi duenak Itzuli tabernan eman beharko du izena. Bazkariaren eta afariaren salneurria 8,50 eurokoa izango da. Aipatutako otorduak herriko pilotalekuan edo plazan izango dira; izan ere, oraindik zehazteko dute.

AHT ▶

AHTren kontrako sinadurak biltzen

AHT Gelditu Elkarlanak *AHT gelditzeko mila arrazoi daude: eman zurea!* kanpaina abiarazi du, AHTren kontrako sinadurak, arrazoiak eta konpromisoak biltzeko. Bertan, jendeak AHTren kontra egoteko zer arrazoi duen azalduko du, nahi izanez gero konpromisoren bat hartuko du AHTren aurka egiteko, eta sinadura emango du. Sinadurak, arrazoiak eta konpromisoak biltzeko herriz herri ibiliko dira, eta honako hau izango da Aiztondo bailararako egutegia: Asteasun, bihar, 12:30ean, plazan; eta, Adunan, etzi, 17:00etatik aurrera, plazan.

TOLOSA ▶

Futbol partida berezia, gaur, Usabalgo zelaian

Gaur, 19:00etatik aurrera, futbol partida berezia jokatuko da Usabal kiroldegiairean futbol zelaian. Izan ere, Realeko jokalariei ohiak eta Tolosako konbinatu & Kultur Klub (titularrak: Jokin Bildarratz, Imanol Alguacil, Ion Aldazabal, Iñaki Alaba, Iñaki Zabala, Jabier Guruzeta, Luluaga, Andoni Imaz, Pello Olano eta Oscar Renedo eta Luis Perez; eta ordezkoak, Asier Bakikoa eta Andoni Iturzaeta). Ondoren, afaltzeko elkartuko dira.

KIROLA ▶



Emaitza bikainak lortu zituzten infantil mailako atletek, iragan larunbateko Euskadiko Txapelketan. HITZA

19 domina etxera, Infantilen Euskadiko Atletismo Txapelketan

Berazubini korritu zuen «maisutasunez» iragan larunbatean, 13 domina mutilentzat izan baitziren eta 6 neskentzat

NOELIA LATABURU

Iragan asteburuan Atletismoko Infantil Mailako Euskadiko Txapelketa jokatu zuten, Berazubini, taldeka bai eta baita banaka ere. Gure eskualdeko ordezkari oso zabala izan zen, eta eskuratutako emaitzak ere oso aipagarriak izan ziren; izan ere, Hirukide ikastetxea mutilen zein nesketan sailkatu zen Euskadikoa lehitzeko.

Korrikalariek eguraldia lagun izan zuten eta emaitzak ere ez ziren nolana hokoak izan. Mutiletan 13 domina lortu ziren: 5 urrezko, 6 zilarrezko eta 2 brontzezkoak izan ziren, hau da, Gipuzkoako Selektzioko domina erdiak baina gehiago bertako atletentzat izan ziren. Nesketan ere gauza bera gertatu zen eta 6 domina lortu zituzten: 2 urrezko, 3 zilarrezko eta 1 brontzezkoa izanik.

Banakako probetan, hauek izan ziren domina erdietsitako mutilak, proba ezberdinetan: Joxemi Jauregi, Iker Epelde, Aitor Zabala, Alberto Limousine, Unai Arroyo, Ander Ortiz anoetarra, Jon Etxaide, Gorka Areizaga, Ander Lazkano, Lander Gil, Mikel Ayerbe, Josu Basagotia, Gorka Sobrino eta Josu Gomez.

Neskek ere paper «ederra»

bete zuten eta parte hartu zuten guztietatik ondorengoek eraman zuten domina etxera: Sandra Lopez —lortutako emaitza luzera jauzian Espainiako Txapelketara joateko baliagarria izango da—, Maria Lopez, Tamara Lozano, Olatz Aldalur, Maialen Berasategi, Alazne Ezeiza. Pisuari hiru ordezkari ziren eskualdekoak eta hiruk oso berdinduak, Elixabet Morenok zilarra lortu zuen 8.83rekin, Oihana Pelaez 4. izan zen 8.64rekin eta Ainara Otamendi 6. 8.49rekin. Azken domina Mara Varela lortu zuen txabalina ia 17 metroekin.

Taldea ere Euskal Herri osoko ikastetxe onenak izan zi-

ren lehian; hain zuzen ere, lurralde historiko bakoitzeko bi.

Taldea, Hirukide txapeldun

Horien artean Hirukide ikastetxea, bai mutil zein nesketan. Banakako emaitzak «ikaragarriak» izan baziren ere, taldekakoak ere ez ziren atzera geratu eta neskek (32 punturakin) nahiz mutilek (35) Euskadiko txapeldunak izatea erdietsi zuten, biek ala biek «urtean zehar egindako lan gogorren ondorioz».

Atleta bakoitzak landutako esparruan, jardunaldi bikaina izan zen, bereaz, Tolosaldeko kirolarientzat Euskadiko Atletismo Txapelketa.

iragarki laburrak ▶

LANA
Tabernaria. Pertsona bat behar da taberna batean lan egiteko. Interesatuek deitu 615 78 90 06 telefono zenbakira.

SALGAI
Pisua. Leitzan, 100 m2-ko pisua salgai. Igogailua eta trastelekuarekin. Eguzkitsua. Interesatuek deitu 699 46 13 65 telefono zenbakira.

ZABALA DESGUAZEA

Beotibar Industria, 18 BELAUNTZA

Tel./Faxa: 943 67 17 90
696 593 347

AGENDA 21 ▶

Etxebizitza eta mugikortasuna, gehien nabarmendutako gaiak Ernioaldeko diagnostikoetan

Udaltaldeko alkateek beren herrietako egoera eta etorkizunera begirako erronkak zehaztu zituzten atzo Villabonan egindako prentsaurreko bateratuan

IMANOL GARCIA

Ernioalde 21 Udaltaldeko alkateek prentsaurrekoa eskaini zuten atzo Villabonako udal-txean, zazpi udalerrietan egindako diagnostikoaren berri emateko. Hernialde udalbatzarrik gabe dagoenez, ez zen bertako ordezkariarik izan aurkezpenean. Bestalde, zazpi udalerrietako herritarren artean beraien iritzia jasotzeko inkesta bat egin zuten, eta parte-hartzaileen artean asteburu bat landaetxe batean zozketatu zuten. Ixone Lahidalga Ugarte billabonata da sariduna. Diagnostikoen baitan, udal guztiek bat egin zuten ur horniduraren inguruan, Ibiurko presa martxan jartzen denean bertatik asetuko dutela behar hori. Etxebizitza eta mugikortasuna izan ziren gairik aipatuena. Jarraian zehazten ditugu herri bakoitzean jasotako ardatzeta-ko batzuk.

Aduna. Arantxa Aburuza alkateak azaldu zuenez, «Agenda

21 egitasmoan sartzea erabaki genuen eta diagnostikoa burutzeari. Orain, horrekin guztiarekin zer gertatuko den kezka azaldu zuten herritarrek herri batzarretan». Diagnostikoaren emaitzei buruz, «herria hazten ari dela eta hori neurri mugatuen egiteko asmoa» zehaztu zuten. Landa eremua mantenduz, industria nola handitu daitekeen aztertu behar dela ere azaldu zuten. Aipatutako beste puntu bat, besteak beste, mugikortasunarena izan zen, eta adunatarrek «autoarekiko dugun menpekotasuna» nabarmendu zuten.

Anoeta. Parte-hartzearen garrantzia mintzatu zen Fidel Azpiroz Anoetako alkatea. Alde batetik, orokorrean «parte-hartzearen kulturaren falta» azaldu zuten, eta datorren ikasturtean Herri Ikastolan martxan jarriko den Eskolako Agenda 21 aipatu zuten, «kultura hori txertatzen joateko». Bestalde, Agenda 21eko prozesua eta bizi dugun kontestu po-



Aurkezpenean izan ziren sei alkateak. Goitik eta ezkerretik hasita: Lazkano, Amenabar, Azpiroz, Aburuza, Ugalde eta Tejeria. I. GARCIA

litikoa nahastu egin direla eta «parte-hartze prozesua behar bezala aurrera eramateko trabak» izan direla zehaztu zuten. Diagnostikoari eta etorkizuneko erronkei buruz, etxebizitzaren eskaera aipatu zuten. «160 etxebizitza gehiago egingo dira, horietatik erdiak babes ofizialekoak eta tasatuak». Zerbitzuei dagokienez, «aurki martxan izango den kiroldegia» zehaztu zuten. Ekintza plana aurrera eramateko «ilusio asko izan arren, ekonomiak

zenbateriano mugatzen duen ikusi beharra dago».

Asteasu. Hainbat puntu nabarmendu zituen Iñaki Amenabar alkateak. Esaterako, etxebizitzak «herri izaera mantenduz» egiteko beharra azaldu zuten, landa eremuak baino herriguneko bertako lurzorua erabiliz. Herriak izandako hazkundeak «zerbitzu eskaintza handitzea» ekarri duela nabarmendu zuten, eta kiroldegi, Kultur Etxe eta mediku kontsulta berriak aipatu zituen. Mugikortasunari dagokionez, aparkalekuen eta garraio publikoaren falta azaldu zuten. Horren aurrean, arau subsidiario berrietan «200 aparkaleku» aurreikusita daudela zehaztu zuten.

Hernialde. Udaltaldeko herri txikiena den diagnostikoan zehazten denez, etxebizitza izan zen herri batzerretan garrantzia izan zuen gai bat. «Eskari nabarmena antzeman da herritarren artean, eta herriko jendeari bideratutako etxebizitza

politika garatzea interesgarri kontsideratu da», jasotzen du diagnostikoak. Bestalde, Aizkoateko kobako, «balore oso altuko ekosistema», babes efektiboaren beharra ikusi dute herritarrek.

Irura. Marimi Ugalde alkateak Irurak azken urteetan izan duen hazkunde handia nabarmendu zuten. «Gehienez 2.000 biztanle izatera heldu nahi dugu eta kopuru-maila horretarako zerbitzuak bermatzea dugu helburu. Frontoi eta kulturune berriak, eta Ikastolako eraikin berriaren eta osasun zentroaren proiektuak aipatu zituzten. Bestalde, arau subsidiarioetan «herrigunea eta industria banatzeko» asmoa gogoratu zuten.

Villabona. Biztanle kopurua poliki hazi dela azaldu zuten Bakartxo Tejeriak eta «bertako eta kanpokoan integrazioa» lortzeko egin beharreko ahalgina aipatu zuten. Etxebizitzei dagokienez, babes ofizialekoak eta tasatuak bultzatzeko asmoa azaldu zuten. Mugikortasuna ere izan zuen hizpide eta herrian «aparkaleku gutxi» daudela zioen; gai horretan sentibilizazio kanpaina egin behar dela azaldu zuten. Udaltaldeko udalerrien artean egingo den bidegorria aipatu zuten, «mugikortasuna hobetzeko nahiarekin».

Zizurkil. «Agenda 21a ez da kanpaina bat, baizik aurrera eramane behar den egitasmoa», zioen Marian Lazkano alkateak, eta «herritarren parte-hartzearen garrantzia» nabarmendu zuten. Zizurkildar gazteak herrian gelditzeko eta kanpotik jendea etortzeko nahia azaldu zuten, eta horretarako babes ofizialeko etxebizitzak egiteko asmoa. Bestalde, Zizurkilek batez ere landa eremua duela eta hori «zaintzea» dutela helburu zioen. Mugikortasunaren aldetik, «trafikoaren arazoa» zehaztu zuten, eta «oinenez eta bizikletaz ibiltzeko mentalizatu beharra» nabarmendu zuten.

BEDAIO ▶ GIZARTEA

Oso eguraldi onarekin gogoratu dute garai bateko harri jasa

Larrañaga eta Mañukorta bazkaldu ostean hasi ziren bertsoan, meza garaian ere baten bat eskaini bazuten ere



Dantzari gaztetuek fandango alai bat dantzatu zuten; 70 bat lagun izan ziren Artubi elkartearen. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Gezurra dirudi kazkabarra duela urte asko egin zuenik, atzoko egun sana ikusita. Bedaiotar ia guztiak bildu ziren Artubi ingurura, Harri Festaz gozatzera. Arratsaldean gazte jende gehiago elkartu zen, izan ere, goizez lan egiten zuen jendea ere zegoen.

Larrañaga eta Mañukorta bertsolariak meza garaian ere bertsoan aritu ziren, baina saiorik osoena ondoren egin zuten, bazkariaren ostean.

Hamaiketako ederra izan zuten bedaioarrek, haragi egoiarekin eta txistorrarekin. Bazkaltzeko entsaladilla errusiar erara, zainzuriak, txuleta eta mamia jan zituzten.

Afaria egiteko asmoa ere bazuten herritarrek, eta Mikel eta Xabier Urretabizkaia trikitalari



Musikarekin girotu zuten baita hamaiketakoa ere. N. URBIZU

eta pandero-joleak egun osoan zehar soinu alaiak joz aritu ziren. Ez zen asko itxaron behar izan lehenengo dantzariak ikusteko, hamaiketakoarekin bikote gaztetu bat atera baitzen fandangoa dantzatzera. Ha-

rriak garai batean egindako kalteak une batean ahaztu dituzte.

Artubi elkartearen esku utzi zituzten jakien prestaketak, eta ez zuten kexarik jaso, dena ondo atera baitzen.

ALEGIA ▶

Piboteak jarriko dituzte San Juan kalean

Alegiako San Juan kalea oinezko bihurtze aldera emandako pausoekin jarraituz, astelehenean autoen igarotzea mugatzen duten piboteak martxan jarriko dituzte. Beraz, hemendik aurrera San Juan kalean garajeak dituztenek, merkatariek eta eskaera berezietatik soilik igaro ahal izango dira kale honetatik, zama lana ordutegietan. Merkatariek egin behar dituzten zama lanetako ordutegia hau da: astelehenean ostiralera, 08:00etatik 12:30era; eta larunbatetan 08:00etatik 11:00etara bitartean. Zama lanen ordutegi honetan autoa albo batean utzi daiteke, gehienez 15 minutuz. San Juan kalea igarotzeko baimena dutenek udaletxetik pasatu behar dute, bertan mandoa eta jakinarazpena jasotzeko.

AMEZKETA ▶

Euskara Elkartearen bilera, gaur

Amezketako Euskara Elkarteak bilera egingo du gaur, 18:30ean, azken boladan elkartu ohi diren moduan. Herriko balio anitzeko gelan izango da hitzordua: bilera irekia da, eta asmo eta ideia berriak jakinaraziko dituzte. Hilabete honetan ekintza bereziren bat egiteko asmoa dute, euskarari bultzada eta laguntza modu berezian emateko nahiarekin.

PILOTA ▶

HITZA Pilota Txapelketako aurreko asteko emaitzak

N. URBIZU

Lehenengo ostiralean Infantilek partidak egin zituzten: Urbieta-Zinkunegi 18, Irastorza-Santxo 3; Landa-Galarraga 13, Bereziartua-Urretabizkaia 18; Aizpitarte-Aranburu 18, Oronoz-Olaizola 0; Errazkin-Etxeberria 12, Urrutia-Zubizarreta 18.

Alebin mailan, Ansa-Garin 5, Untxalo-Apeztegia 16; Eskudero-Jauregi 16, Galarraga-Otaegi 8; Balerdi-Orbegozo 4, Erdozia-Urkizu 16; Urdangarin-Jaka 16, Ibarzabal-Tolosa 9.

Benjaminetan, larunbatean hauexek izan ziren emaitzak: Iraola-Otaegi 16, Zubeldia-Ugalde 8; Arruti-Unzalo 9, Urdanpilleta-Senperena 16; Noble-Lizeaga 3, Telletxea-Mitxelena 16; Sagastume-Altuna 16, Peña-Iturbe 7.

Helduagokoen emaitzak

Kadeteen mailan, lehenengo asteazkeneko partidetan, Agiriño eta Kruzen artekoa 18-14 amaitu zen; Iraolak 18, Arakistainek 3; Oiarzabalek 5, Galarrak 18; eta Olaetxeak 18, Garcia 6.

Jubenilak asteartean eta asteazkenean aritu ziren: Ezkurdia-Bergera 15, Garralda-Beroiz 22; Mendizabal-Azkarate 11, Goikoetxea-Larrinaga 22; Juanena-Otxandorena 22, Narbarte II-Urrutia 21.

Senior mailan: Etxebeste-Etxegarai 20, Uriarte-Iza 22; Beloso-Huarte 22, Muguza-Zapirain 7; Angulo-Boto 4, Ongai-Antxo 22; Mendiluze-Elizalde 13, Lazkoz-Irureta 22.

OSTATUA

- Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
- Karta aste guztian zehar

Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

Gure gomendioa

Gure gorretako herriak
Kati Ugarte

Baita okerrak baina aukaratu
Estoriz Agirre • Asisko Urmeneta

Nambiaranda
Elfrade Jorras

Niam Chomsky
Imanol Irujo

ekar ezagutzen dugulako

BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA

TXARAMA ▶ JAIK

Egun osoko festa bihar, herri jaian

Toka eta patata tortila lehiaketa, afaria eta jokoak izango dira, besteak beste



Aurrekoetan bezala, aurten ere Toka Txapelketa egingo dute. i. e.

INIGO TERRADILLOS

Ohiko moduan festa giroa izango da bihar nagusi Txaraman; izan ere, herri jaia ospatuko baitute. Festa egun osokoa izango da, eta egitarauari dagokionez, haur nahiz heldu, guztiak zuzendurikoak izango dira.

11:00etako suziriarekin emango diote hasiera jaiari. Ondoren, Toka Txapelketa egingo dute; irabazle suertatzen diren parte-hartzaileek afarirako 2 txartel eskuratuko dituzte. 12:00etan, patata torti-

la lehiaketa egingo dute, eta kasu honetan ere, irabazleek saria jasoko dute. 16:30ean, gaztetxoentzat herri kirolak prestatu dituzte, eta ondoren, txokolatada egingo dute. 18:30ean, futbolin txapelketa herrikoia egingo dute; txapelketa hasi aurretik egin beharko da izen-ematea, eta bikoteak zozketa bidez egingo dira. Azkenik, 21:00etan, afari herrikoia antolatuko dute, trikitilariarekin eta bertsoariarekin. Modu horretan emango diote amaiera aurtengo Txaramako herri jaiari.

IBARRA ▶ KULTURA



Hasi dira sanbartolomeetako herri antzerkiaren prestaketak

Erredakzioa ▶ Aurreko urteetan bezala, aurten ere Ibarako San Bartolome jaietan, abuztuaren 25ean hain zuzen ere, herri antzerkia egingo dute. Hauspoa elkartea hasia da prestakizunekin, eta herritar guztiak dei egiten diete antzerki honetan parte hartzea anima daitezen. Horretarako, bilera bat antolatuko dute, antzezlanari eta entseguei buruz hitz egiteko. Datorren asteartean, hilaren 6an, egin dute hitzordua, 20:00etan, Sendi-Ekintzaren lekalean. HITZA

IBARRA ▶ EUSKARA

Diru laguntzak euskara ikasten ari direnentzat

Uztailaren 28ra arte egingo dira eskaerak, udaletxeko sarreran edo Euskara Zerbitzuan

ERREDAKZIOA

Ibarako Udaleko Euskara Zerbitzuak euskara ikasten ari diren ibaritarrentzat diru laguntzak emateko deialdia zabaldu du, eta uztailaren 28ra bitarte izango da eskaerak egiteko aukera. Diru la-

guntzia eskatzeko baldintzak honakoak dira: Ibarren erroldatuta egotea, eta euskaltegiaren edo barnetegiren batean edo unibertsitate mailako udako ikastaroren batean matriculatuzea.

Diru laguntza jasotzeko baldintzak honakoak izango dira: matrikula ordainduta izatea, ikasturtea edo ikastaroa amaitzea, gutxienez %85eko asistentzia bermatzea, maila bakoitzari dagozkion azterketak egitea, irakaslearen txostena ona izatea eta Ibarren erroldatuta egotea ikasturtearen edo ikastaroaren amaiera arte. Diru laguntzak ikasturte edo ikastaro bakoitzaren matrikularen %75 izango dira gehienez. Euskaltegien kasuan diru laguntza matrikularako izango da, eta barnetegien kasuan, kostu osoaren %75 izuliko da.

Eskaerak udaletxeko sarrera leihatilan edo Euskara Zerbitzuan eskuragarri egingo dira. Eskariarekin batera eskatzaileak NAREN fotokopia eta baldintzak bete direla ziurtatzen duen euskaltegiaren agiria aurkeztu beharko ditu.

TOLOSALDEKOHITZA.
INFO ▶

HITZAren kobraketa kanpainak aldaketa bat du aurten: ordaintzen ez duenak ez du etxean jasoko.

Interneten orria edukitzeak asko esan nahi duela iruditzen zait; erraztasun handia ematen du, eta berdin-berdin irakurri dezakezu eta gaur jendea diruz nola dabilen ikusita mingainean bai baino, patrika zuloarekin ez dute gasturik nahi. Gainera, jende asko ezagutzen dut interesgarri iruditzen zaiena imprimatu egiten duena eta bata besteari pasa. Hori gertatzen da, ez HITZAren bakkarik, beste gauza askorekin ere bai, jendea leporaino zorretan sartuta baitago eta daukaten diru apurra beste-rena baita. Gogoan izan.

JOXE MARI ▶

Oso ondo iruditzen zait. Egunkaria etxeraino eramateak koste bat du. Jaso nahi duenak, ordain dezala!

▶

Nire iritziz HITZA ordaintzen jarraitu behar dute enpresek orain arte bezala. Beste egunkariak laguntzeko prest dauden bezala, lagun dezatela HITZA, batez ere Eusko Jaurlaritzak eta gaitzontzeko erakundeak ere. Zergatik? Euskararen alde egiten duen lanarengatik.

JOXE MARI ▶

Zuzena iruditzen zait. Bestela, guztiok ez ordaintzeko erabakia hartuko dugu. Ordaintzen dugunon artean eta ez dutenen artean aldea egon behar dela uste dut eta orain arte ez zegoen. Kanpaina honekin behintzat ez ordaintzaileek ez dute HITZA etxean jasoko.

▶

Ondo iruditzen zait ordaintzearena jartzea etxeraino HITZA banatzeko baldintza bezala. Baina, zer gertatzen da egun batean bai, baina hurrengoan jasotzen ez dugunontzat? Mesedez, zaindu ezazue hori; izan ere, bestela zertarako ordainduko dut?

▶

Oso simplea da, etxean HITZA izan nahi duenak ordaindu dezala.

PATXI ▶

GIPUZKOAN gehien irakurritako egunkarietan BIGARRENA*



HITZA euskarazko komunikazio esparrua egiteko beharrezko tresna



Euskarazko prentsak gero eta irakurle gehiago ditu

Mila esker

*CIES-en 1. neurketa 2006. Azterketak Gipuzkoan 69.000 irakurle eman dizkigu; Herrialdeko 23 herritan egin da, horietatik 13tan dago HITZA.

ARESO ▶ SOKATIRA



Iazko txapelketan, Aresoko saioan. Sokan 3.a, Etxetxikia. JAIONE ASTIBIA

Bi tiralari gutxiagorekin gelditu dira

Bizkarrezurreko arazoak dituzte; 680eko azken saioa, hilaren 10ean

JAIONE ASTIBIA

Areso sokatira taldeak bi baja izan ditu azken egunetan: Boni Etxetxikiak eta Joseba Susperregik ez dute jokatzeko ari diren Euskal Herriko Txapelketan jarraitzerik izanen, biek ala biek ere bizkarrezurreko arazoak dituztela eta, taldetik HITZARI jakitera eman diotenez.

Gainera, Susperregi beratarak «soka uztea ere litekeena» dela zehaztu dute, «hau bizkarretik ebaketa egindakoa ere badelako». Etxetxikiaren kasuan, berriz, «zartakoa izan zuten eta erniaren bat ote duen, medikuengandik emaitzak jasotzeko zain dago. Edozein moduz, ziur aski denboraldia egin izanen du», azaldu dute.

Baja hauek taldearentzat «garrantzitsuak» direla esan dute, «Boni —Etxetxikiak— erabateko tiralaria zen, tiraldi guztietan aritzen zena; hau

gabe, pisu tikiatarako aldaketarik ia gabe gelditu gara», argituz: «Igotz Arbeo izan daiteke aldaketarako aukera bakarretakoa». Jakina da Areso taldeak 600-660 kilotan jarrita dituela itxaropenak, baina lesio hauek zuzeneko eragina izan dezakete horretan.

Hala ere, orain pisu handitan ari dira. 680 kiloko pisuan jada bi jardunaldi jokatu dituzte; hil honen 10ean jokatu dute hirugarrena eta azkena. Eta honetara bideratuko dituzte indarrak orain.

Esan, aurreneko jardunaldian bezala, bigarrenean ere Nuarbe gailendu zela, eta ondorioz 12 punturen jabe izanik, Azpeitiko taldeak nahiko ziur duela pisu honetako txapela. Aitatzekoa da, halaber, Aresoko tiratzaile Jon Otermin azpeitiarren sokan aritu zela, talde hark egindako eskariari jarraiki.

EKONOMIA ▶

Ume tikiak dituzten andreetzat laguntzak

Cederna-Garalur garapen agentziak hainbat aukera eman ditu jakitera

ERREDAKZIOA

Zonaldeko Cederna-Garalur garapen agentziak ohar baten bidez jakitera eman duenez, Nafarroako Gobernua «3 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten emakumezko langileentzat» diru laguntza deialdia zabaldu du.

«2005. urtean beren kabuz edo besterentzat lan jardueraren bat egin eta epe horretan 3 urtetik beherako seme-alabaren bat beren gain izan duten emakumeak», diru laguntzaren onuradun izan daitezke. Eskerak egiteko epea hil honen 30ean bukatzen dela, interesatuek NAOko 56. alean begira dezaketela zehaztu dute. Beti ere garapen agentziara bertara ere joan daitezke.

LEITZA ▶

Liño-putzuko boletoak salgai herriko dendetan

ERREDAKZIOA

Topaketarako dirua ateratzeko boletoak jarri ditu salgai Liño-putzu ehoziri lanzale taldeak, herriko dendetan. Beraiek egindako lanen zozketa igandean egingen dute.

LEITZA ▶ KIROLAK

Euskal Herriko txapela Agirre-Iraolarentzat

Gomazko Pala Txapelketan, 30-29 irabazi dute finala Iparraldeko bikotearen aurka

J. ASTIBIA

Igaro berri den asteburuan Iera Agirre eta Saioa Iraola pilotariek Euskal Herriko Emakumezkoen Binakako Gomazko Pala Txapelketa irabazi dute.

Euskal Herriko Pilota Konfederazioak antolatuta, Hernanin jokatu zituzten txapelketa horretako 4 mailetako finalak. Leitzarrek helduen mailan parte hartu zuten, nazio guztiko beste 5 bikoterekin batera. Bi taldetan banatuta, 3na partiduko ligaxkan beraien taldean aurreneko gelditu ondoren jokatu zuten finala, Iparraldeko Eyherachar-Comets bikotearen aurka, beste taldeko aurrenekoak.

Hala, 30-29 irabazi zuten Agirre-Iraolak, ordubete eta hiru ordulaurdeneko partidu

luze bezain gogorraren ondoren. Hasieran alde pixka bat lortu omen zuten, pilota berena izaki; baina haiek pilota bizi-bizia atera zutelarik, berreskuratu egin ziren eta 15etik aurrera, bi bikoteak berdin joan ziren, batean batzuk eta besteak besteek, tantoak txandaka eginez: «Oso-oso lehiatsua izan zen», nabarmendu dute leitzarrek. Azken tantora arte ez zen erabaki.

«Oso gustora gaude, espero gabekoa izan delako. Arerioak ez genituen ezagutzen; ligaxkan alde handiarekin irabazi zutela besterik ez genekien—zioten—. Gero, gu baino zaharragoak ere badira eta indartsuagoak ere bai. Horregatik ezustekoa izan da guztiz», esan diote HITZARI Euskal Herriko txapelkun berriek.

LEITZA ▶ HIRIGINTZA



Eraisterako biltegiak garbitzen

J. Astibia ▶ Gasolindegia zaharreko lurpeko biltegiak garbitzen ari da egun hauetan Urbina enpresa, Udalak kontratatuta. Eraikina ez ezik erregaiak jasotzeko erabilitako biltegiak bota eta eraitsi baino lehen, batez ere biltegian, «gasak atera eta bertako hormak garbitzen» ari dira langileak, «dagokien tratamendua» emateko, azaldu dutenez. Eraisketak, osotara, 30.000 euroko aurrekontua du. J. A.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko ekainaren 2a, ostirala ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez



beroena

15

hotzena

14

BIHARKO EGURALDIA



goizez



arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Amezketeta. Euskara Elkartean bilera. 18:30ean, balio anitzeko gelan.
Bidegoian. 16:30ean, musika emanaldia eskolan; egun osoan, eskularen erakusketa, leku berean.
Ibarra. Gorritira irteera antolatu du Haitzetan Raju mendi taldeak hilaren 11n. *Sua* filmerako grabaketa ere egingo dute arratsaldean. Izen-ematea, Ibarra Atari eta Zubiaurre tabernatan, Tolosako Denak-en eta 652 71 58 00 telefono zenbakian.
Ibarra. Uzturpe ikastolaren festa. Bihar, 10:30etik aurrera.
Tolosa. Hilaren 2-3, 9-10 eta 16-17 asteburuetan salgai jarriko dituzte sanjoanetako Koadrila Eguneko txartelak Orbela, Meskal eta Ikatza tabernetan. Ostiraletan, 19:00etatik 21:00etara bitartean jaso daitezke, eta larunbatetan 11:00etatik 13:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.
Tolosa. Laskorain Ikastolaren festa. Bihar, egun osoan, Usabalen.
Villabona-Zizurkil. Jesusen Bihotza ikastolaren jai. Bihar, 14:00etatik aurrera, Txerminen (Villabona).

ERAKUSKETAK

Alegia. Maite Itxasoren margolanak. Hilaren 21a arte ikusgai, Jubilatuen tabernan.
Tolosa. Aterpeak. Miguel Angel Oriberen eskultura erakusketa. Gaur inauguratuko dute, 19:30ean, Aranburu Jauregian. Bertan izango da ikusgai, uztailearen 1a arte.



‘Erreleboa’, Galarza eta Usabiagarekin, gaur

IBARRA ▶ Iker Galarza eta Joseba Usabiaga eskualdeko aktore gazteek *Erreleboa* antzezlan eskainiko dute gaur Benito Izagirre kultur etxean, 22:30an. Begoña Bilbaok zuzendutako Txalo Teatroaren komedia honekin barrez lehertzeko aukera izango dute ikus-entzuleek. HITZA

MUSIKA

Villabona. Eresargi Ttipi abesbatza, Nerea Barriola sopranoa, Ana Iparragirre piano-jolea eta Eresargi abesbatza. 19:30ean, Gurean. Jesusen Bihotza ikastolaren 40. urtemugan.

GUARDIAKO FARMAZIAK


Gaur
Leitza. Plaza, M. Elbarren 36. 112.
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko aholasa* magazina.
 21:00-22:00. *Zaharrak Berri*.
 22:00-23:00. *Arkako show*.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN

Txindokipeko Mari. Gaurko egunak asko poztzen gaitu. Izan ere, zure laurogeiak ospatzen ditugu. Urteen zamak izugarri zaitu edertu. Hain polita, alai, indartsu zaude ezin sinestu, bihotzeko amaboa, zenbat maite zaitugun! Gogo bat: beti zure alboan elkartu gaitzazu.



URTE ASKOAN

Tira, tira, tira!
 Kepa zientzia izan dugun zurekin...
 Ondo pasa!



URTE ASKOAN

Arkaitz.
 Gaur 25 urte.
 Zorionak, xepaxa.



URTE ASKOAN

Unai Mendez (Anoeta). 4 urte.
 Ea zentzaitzen zaren gaurtik aurrera. Naroa, aitabo eta amaboa.



URTE ASKOAN

Alain Ugartemendia (Elduain). Gaur 7 urte. Zorionak Berastegiko familiarren partetik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
 agurren tarte

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA
 2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

▶ **egunero 8 orrialdeko kalitateko egunkaria, euskaraz**
 ▶ **uneoro informazioa eskura** www.tolosaldeko-hitza.info

KONTU KORRONTE bidez ordainduaz EROSOAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA

txartel berriarekin abantailak!

beherapenak agurretan, eskeletan eta iragarki laburretan besteak beste

egunean 0,18 zentimoren truke etxean

colegio ikastetxea PRESENTACIÓN DE MARÍA

LANBIDE HASTAPENA ESPEZIALITATEAK:

- ELEKTROGAILU KONPONKETA LAGUNTZAILEA
- INFORMATIKA EKIPOEN KONPONKETA LAGUNTZAILEA
- INSTALAKUNTZA SINGULARRETAN LAGUNTZAILEA: MEGAFONIA, ANTENAK, ALARMAK, PORTERO AUTOMATIKOAK

MATRIKULA ZABALIK

Mandasko Dukea, 1 • 20012 DONOSTIA
 Tel./Faxa: 943 46 01 45 • CIPP.MARIA@terra.es